

ZEIÑEN ALDEZ

UMOREA TA UNOREA

Alako berezitasun bat ei daukagu bizkaitarrok umorerako. Ala esaten eban oraintsu Aita Gotzon Garate'k Deia'n.

Idazle hi izentatzen zitun berak: Kirikiño eta Juan San Martin. Nik dakidala «Aheletxe» hat, ez da, ba. kanpoan lagateko! Eta, eta...

Gauzak nundik eta zelan begiratu, izaten dira.

Adiskide bat ikustera Joan nintzan bein erri txiki batera. Unorez beteta ebillan. Eta umorez be hai.

Konturatzeko da erri askotan, erderazko «hurnor», ataraldietakoa izan edo ta gorpuzkin lotuena, erri berbetan n eta m'gaz alderatzen dogula: «umore» ta «unore».

* * *

IDI-DEMAK

Idi-prohak egozala eta nire laguna «kuadrilla» joan bear zala esan eusten.

Nik, fede onez, palkoan egon bear ko zala pe ltsatu neban. Baiña plazan sartu ta ango deadar, aiva ta aixak entzuten asi orduko, nun ikusten dodan bera sartain andi bategaz idiaren konpittak batu nairik, erdi errenka, brixak urtenda, komedi bizia egiten.

Zegaitik ez dira probetan, itzai eta karreteroekin batean, ango «funtziñoia» osotzen daben beste gizonak aitutzen?

Nik beintzat, euren itxura eta jokoa ikusita, eta batez be euren ardura ta osotasuna igarrita, esaten dan aiñako azpikeria eta zikinkeria probetan egoten ete dan zalantzanipiniko neuke.

* * *

OSPEA TA DIRUA

Ondu baietz! Ondo ezetz! Bi geiago baietz! Irurik ezetz!

Zenbat eta deadar andiango, guzur geiago?

Andik laster zan. Txapeldun geratu zan bat. Eta ast- bete orduko, joko barri bat gertuten ziarduen.

Txapeldunak, gain gaiñetik, irabazi nai eban. Eta gertu egoan arertoari diru saria, lenengo premiva emoteko, berari irabazten lagatekotan. Ospeak, izenak, entzuteak geiago balio eban, diruak baiño.

Egin eban tratua. Lenengo txapelduntzat egoan egin hear chart lana. Ori he tratuko zan. Ainbat antze egia zittnl.

Bestea asi zan bere ekiñean.

Itxura baten marka guztiak gainduteko Irau, tatarrez.

Aren tengada eta bizitasuna! Baiña besteak baiño untze hi gitxiagotan geldi, planto, oraindik denpora eukala. Ango tongo, tranpa, gantzeru, lapur eta antzcrako deadar-otsa!

*

SARTAINDUNA

Alako baten idictako hat berde likiña atzealdetik jaurtiten asi zan.

Gure sartainduna, unorez okertuta, jendearen gora-bera eta estutasunei hegira adiango egoan, idien premiñak zaintzen baiño.

Konturatu eta berdekeriak batu nairik urreratu zanean, sartaiña be eskutik jausi, likinkeri ta guzti, ta sartain zarra idiak ankaratean igarri ebanean, asi zan tengadaka, bere laguna be keixatu ta... beste icu untza tatarrez ez zituen egin ba?

Sal taindunak irabazi proba!

Batzuen imorea eta bestien unorca ikusteko ziran.

Umore baltz, berde ala zuria?

Ori diru jokatzalliei itandu, edo ta txapeldunen gorak ziurtzat eukezanei.

* * *

POLITIKA - DEMAK

Beste proba batzuk daukaguz laster. Politika-koak.

Adiskide batek ha daki emengo politikarren barria. Esaten daki: Iñok ezer ordainduko ez ba'gendu, cz kontrihuziño, ez asegurantza, cz bestelako zergarik... emengoa egiña legoke. Or ikusiko litzake euskaldunon nortasuna. Baiña herako ezin dan astero kiniela eta loterian ainbat diru jokatu barik geratu.

•Ez al dago orretan umore baltzik?

Auteskunde egunak datoz. Eta ha dabil jakin-naia: Zu zein alde?

Sartaindunagaz gogoratzen naz: zintzo dabil-lenaren aide. Ez da, ba, esaten sartaiña eskutik eukitea jokoerdi dala?

Baiña, zeatz: zein alde?

Jakin nai? Zereko zeraren aide. Edo ta nai ha dozu: ZER'eko zeregiñaren alde.

Ordago Igarri ta irribarr egin.

Bear dogu, izan bc, euskaldunok irribarrczka jarduteko txanda.

A. ZUBIKARAI